


## GELA bateko umeen eta bere familien beharrak nola asetzen dira?



*LHko4.mailarako sekuentzia didaktikoa*

*Elena López*

## LAN-ESKEMA

**Irakasgaia:** Natura, kultura eta ingurunearen ezaguera

**Gaia:** Gela bateko ikasleen betebeharrak eta eskubideak

**Maila:** Lehen Hezkuntzako 4. maila

**Saio kopurua:** 3-6 saio

### Proposamenaren testuingurua

Guztiok gela betako partaideak gara, tamaina, ikasle kopurua, kokapena... oso ezberdina izan arren, gure gela eta eskolako beste kideen artean dauden harremanetan eskubide eta betebeharrak bi aldeetatik bete behar dira.

Eskolak irekia izatea eskatzen du, etengabe hobetzen aritu behar duena, kudeaketak ikasleen eta bere familien behar eta itxaropenak ase beharko ditu. Eskola horrek ahalik eta bizkorren, hoberenen eta erarik eraginkorrenean eman beharko du zerbitzua eta, horretarako, antolatzeko metodo demokratikoenak erabili beharko ditu.

Hiritarrek (familiak, ikasleak,...) elkarrekin bizi behar dute eta hala hori egiteko nola guztion eskubide eta interesak zein gure hirian dauden pertsona guztienak babesteko, jokabide-arau zehatzak eta demokratikoki onetsitako legeak bete behar dira. Eskubideen erabilera oztopatu edo betebeharrak betetzen ez badira, eskola guztian eragiten duten ondorioak sortzen dira.

Unitate honetan horixe landuko dugu: Zeintzu dira bakoitzak bere gelan ditugun ESKUBIDE? Gure beharrak asetzen al dira?. Zeintzu dira eskubide eta behar horiek?. Jakin badakigu Eskubideak eta betebeharrak loturik daudela, beraz zeintzu dira gure betebeharrak?. Eta nola egingo dugu ados ez gaudenean?. Liskar posibleen artean zeintzuk izan daitezke aurre egiteko bide positiboak?. Ba al dakigu arautegi adostu bat egiten bat?. Eta gela batetan arazoak daudenean hartu behar diren erabakiak?. Ikasle guztien ongizatea helburu izanik zein izan beharko litzateke guztion konpromezuak?... Plana gauzatzen doazen neurrian, ikasleak informazioa antolatzen joango dira, bukaeran lanaren aurkezpen bat egiteko kideen (zikloan edo maila baxuagoetan) edo gurasoen aurrean. Honi aurre egiteko bakoitzak bizi den gelako ezagutza, antolaketa, oinarrizko eskubideen ulermena eta bakoitzari eskatzen zaion betebeharrak ulertzea, gatazkei aurre egiteko bide batzuk jorratzea beharrezkoa izango da.

### Landuko diren oinarrizko gaitasunak (jarduerak)

- Gizarterako eta herritartasunerako g.: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7
- Ikasten ikasteko g.: 1, 2, 3, 5, 7, 8
- Hizkuntza komunikaziorako g.: 1, 3, 4, 5, 6, 7, 8
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko g.: 3, 7
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako g 1, 2, 3, 4, 5, 7, 8

### Helburu didaktikoak:

- Ikasle bakoitzak bere gelaren ezagutza handiagoa lortzea, ikasleek dituzten beharrak asetzeko eskolak eskeintzen dutena ezagutzea eta ikasleonek betebeharrak hausnartzea.
- Gelako ezaugarriak, funtzionamendua eta antolaketa ezagutzea eta aztertzea.
- Gelak dituen arauak eta ondoren hezitzaileak ezagutzea.
- Gelaren funtzio nagusiak eta antolaketa identifikatzea.
- Gelakideen irudi ezberdinen funtzioak ezberdintzea.
- Eguneroko bizitzan gelako funtzionamendu demokratikoan gelakideek dituzten eskubideak eta betebeharrak aztertzea eta hori kontuan harturik ezadostasunen aurrean bide ezberdinak jorratzea.
- Ikasleek bere eskoletako hobekuntzaz hitz egiteko eta erabakiak hartzeko gelako asanbladan parte hartzea.
- Gatazkak eta ebazpenen aurrean jarrera eraikitzailea erabiltzea eta dialogoa eta negoziazioa ulertzea eta kontsentsorako bideak erabiltzea.
- Edozein arazoen aurrean bere ikuspegia aztertzeaz gain, besteen lekuan ipintzea. Liskarrei aurre egiterakoan giza eskubideak defendatzea eta giza trebetasunak erabiltzea.

### Edukiak:

- Ikasleek gelan dituzten Eskubide eta Betebeharrak.
- Gelaren ezagutza: Fisikoki, Oinarrizko arauak funtzionamendua eta antolaketa.
- Gelako arauak eta ondorio hezitzaileak .
- Bakoitzaren funtzioak eta antolaketa.
- Gatazka txokoaren erabilpena
- Gelan eman daitezkeen liskarrei aurre egiteko bideak.
- Gelakideen arteko desberdintasunak aberastasun-iturri moduan biziitzea.
- Gatazkei aurre egiteko modu positiboak: dialogoa, negoziazioa, adiskidetzea, erreparazioa,....
- Eskolako edo gelako batzarretan parte hartzeko trebetasunak.
- Informea, Elkarrizketa, aurkezpena egiteko baliabideak.
- Elkarren sentimenduak balioestea besteen lekuetan jarriz.
- Eskubideak eta betebeharrak elkarrekin.

### Jardueren sekuentzia:

- 1. saioa: Zer dakigu gai honi buruz?. Aurriritziak ateratzea, jakintza maila baloratzea eta irakasleak dituen helburuak identifikatzea.
- 2. saioa:., Emozioei buruzko ezaguera zabaltzea.
- 3. saioa: Gelako arautegiaren lanketarako prozedura.
- 4. saioa. Irudia eztabaidatu zure kideekin gelan.
- 5. saioa: .Gatazka txokoa martxan jarri gelan
- 6. saioa: Zertan parte hartzen dut nire bizitzan .
- 7. saioa: Gatazkei aurre egiteko modu positiboak: dialogoak, negoziazioak,...
- 8. saioa: Zer ikasi dugu: informeak, aurkezpenak, elkarrizketak.

**Ebaluazioa:** Adierazleak eta jarduerak

- Gelako informazio bildu eta era antolatuan gordetzeko gai da:
- Ikaskideen eskubideak eta betebeharrak identifikatu eta ulertzen ditu bere bizitzarekin erlazionatuz:
- Eskubideak unibertsalak direla identifikatzen ditu:
- Informazioak bide ezberdinak jorratuz bildu, antolatu eta konpartitzeko gai da:
- Eskubide eta betebeharrak biltzen duen idatzi bat egiteko gai da.
- Ikasleen artean eman daitezkeen gatazkak, liskarrak, ez adostasunen aurrean bide positiboak erabiltzen ditu.
- Guztion artean adostutako arauak errespetatzeko jarrera agertzen du:
- Parte hartzen du aktiboki gelan planteatzen diren eztabaidatan (eta jardueretan):
- Talde-lana aurrera ateratzeko borondate baikor eta lagunkoia erakusten du:
- Modu egoki batean adierazten ditu, eskola kideen aurrean, gaiaren inguruan bizi izandako esperientziak:

**1. jarduera** : Zer dakigu gai honi buruz?. Aurriritziak ateratzea, jakintza maila baloratzea eta irakasleak dituen helburuak identifikatzea

**Ondorengo galdeketa hau bete ezazu bakarka, galdera guztiak erantzun ahal izateko 20 minutu izango dituzu.**

**Ondoren elkar-jartzea egingo dugu arbela erabiliz ,eta denon artean eztabaidatzeko ditugu erantzunak.**

#### **ARAU EI BURUZKO HAUSNARKETA**

1. ARAUAK BEHARREZKOAK AL DIRA?
2. AIPATU ARAU BATZUK:
3. AIPATU ETXEAN, KALEAN ETA ESKOLAN GAUR BETE DITUZUN ARAU BATZUK.
4. KIROLE TAN ARAUAK DAUDE? AIPATU BATZUK:
5. JOLASE TAN ARAUAK DAUDE?
6. AIPATU ARAURIK GABEKO AKTIBITATE BAT EDO JOLAS BAT:
7. NOIZBAIT ASMATU DUZU ZUK ARAUREN BAT? ZEIN?
8. ARAUAK BETIRAKO BALIO DUTE. HAU DA, DENBORAN ZEHAR ARAUAK ALDATU EGITEN DIRA? ADIBIDEZ?
9. ARAUAK BERDINAK DIRA LEKU GUZTIETAN? ARAU BATEK BALIO DEZAKE LEKU BATEAN ETA BESTEAN EZ? ADIBIDEZ?
10. ZUEN ETXEETAN ARAU BERDINAK DITUZUE?  
ADIBIDEZ: ETXERA JOATEKO ORDUA  
OHERA JOATEKO ORDUA  
NOIZ JOLAS DAITEKEEN PLAYEAN  
ZENBAT JAN BEHAR DEN  
TELEBISTA ZEIN ORDUTAN IKUS DAITEKEEN  
JANARIAK NOLA JAN BEHAR DIREN: oilaskoa, kroketak...  
NOLA ESERI BEHAR DEN  
BESTE BATZUK...
- 11.- ZEIN ARAU DA ZURETZAT BETETZEKO ZAILENA.

SINADURA:

**Ondoren elkar jartzea egingo dugu arbela erabiliz ,eta denon artean eztabaidatzeko ditugu erantzunak.**

**Eta bukatzeko imajinatuko dugu egoera berri bat .**

- **Zu bizi zaren etxean zure ustez ba la dago auzokideen artean adostutako araurik , zeintzuk ezagutzen dituzu?**
- **Galdetu zure gurasoei?**
- **Zeintzuk ez daude adostuta oraindik eta zure etxekoen ustetan adostu beharko lirateke?**

**Eta orain gelakide guztien erantzunak elkar jarri talde txikietan eta gero talde handian.**

## 2. jarduera : Emozioei buruzko ezaguera zabaltzea

### MUSIKAN SARTZEN

#### 1. JARDUERA.

Dakizuenez musikak emozioak transmititzen dituela. Jarraian aukeratu zuen gustuko leku bat eta musika pasarte batzuk entzuten ditugun bitartean, musika haiek transmititzen ideiak, irudiak, etb margoztuko ditugu.

Honako hauek izango dira entzungo ditugun musika melodiak:

- a. Debussy: "Fauno baten arratsaldea"
- b. Strauss: "Danubio urdina"
- c. Vivaldi: "4 urtaroak"
- d. Gershwin: "Rhapsody in Bleu"

Orain, pentsa ezazue unetxo bat :

- Zein emozio ekarri dizute musika horiek ?
- Zuek egindako marrazkiek emozio horiek islatzen al dituzte ? Nola ? Zein kolore edo forma aukeratu duzu/duzue emozio horiek islatzeko?

#### 2. JARDUERA.

Jendeak emozio desberdinak agertzeko jokaera desberdinak ditu.

Gu jolastokian gaude eta mugi gaitzke nahi dugun lekutik. Bitartean adierazi behar duzue pozik, triste, haserre, ikaratuta sentituko bazinete.

Orain, berriro kanta entzungo dugu eta musika horrek ekartzen dizkizue emozioak adierazi behar dituzue zuen espresio eta mugimendurekin. Gogorat ezazue mugitzen zareten bitartean ezin duzuela jo edo bultzatu.

Lasaitasun unera ailegatu gara, orain denon artean erantzun behar ditugu galdera hauek:

- Zein sentimendu izan dituzue musika entzuten zenuten bitartean?
- Zein mugimendu erabili duzue zuen emozioak adierazteko?
- Nola erabaki duzue emozioak adierazteko mugituko zineten modua?
- Dibertigarria izan al da zuen emozioak musikaren erritmoaren arabera adieraztea?


### 3. Jarduera : Gelako arautegiaren lanketarako prozedura

#### 1.SAIOA

Orain arte egin ditugun jardueratan ikusi dugu , ezinbestekoa dela edozein taldean denok garbi izatea zeintzuk diren bertako arauak , horregatik ikusi behar dugu zeintzuk izango lirateke eman behar ditugun pausoak gure gelako arauak adosteko.

Hasteko ondorengo ariketak egingo ditugu:

- Gelako araudia sortzeko lehen pausoak emango ditugu: arauen beharra azteretuko dugu
- Eskolan ditugun arauetz jabetuko gara eta hausnarketa egingo dugu
- Jolastuz arauak beharrezkoak direla konturatuko gara





HEMEN IKUSTEN DUZUE AUTOBUS BAT . Autobusaren 4 leihatilak Urriaren lau tutoritza saioen data azaltzen dira .Autobus honek bidai bat egingo du eta laguntza behar du. Motorrarren indarra zuek ikasleak izango zarete. Motorran irudikatuta dagoen lekuan, ikasle eta tutorearen izenak azalduko dira eta gure esfortzuaren konpromezua eskatuko diegu sinaduraren bidez.

#### 1.2. ZER DAUKAGU ORAIN ARTE?

Murumendi Telebista piztuko dugu eta gure eskolan grabatutako erreportairen bat erakutsiko diegu, non pasiluetako joan-etorriak, zaratak.....ikusiko dituzte. Erreportaia ikusi eta gero, ikasleen iritziak jasotzen hasiko gara, daukagun egoeraren hausnarketa bat eginez.

Ateratzen diren ideiak, arbelan idatziko ditugu mapa kontzeptual bat osatuz, paperean ere jasoko dugu arbelean atera dena. Jaso duguna, Ekainaren bukaerarte jasoko dugu.

Guztiok adostutako zerbait aurkituko dugu bidai horren bukaeran.

#### 1.3.- SENSIBILIZAZIO ARIKETA

Saioaren aurretik ikasleei etxetik partxisak ekarri behar dituztela eskatuko zaie.

Ikasleak taldetan banatuko ditugu eta jolasean jarriko ditugu; partxisean zein okan. Jolastu ahal izateko garbi izan behar dute ez dagoela araurik, dena dago onartuta. Bukatutakoan aztertuko dugu zer gertatu den araurik gabeko jolasetan.

#### 1.5.- ONDORIOAK

Zer ondorio ateratzen dugu hemendik? Ateratako ondorioak arbelean eta paperean jasoko ditugu beste mapa kontzeptual bat osatuz

#### 1.6.- SAIOAREN BUKAERA

Zer egin dugu gaur? Autobusaren 1. leihatilan idatziko dugu:

- konpromisoa sinatu
- hausnarketa egin
- bideoa ikusi
- ondorioetara iritsi

## 2.SAIOA

Gaurko saioan aztertuko dugu arauen beharra

- Gelan sortzen diren arazoan azterketa egingo dugu
- Elkarrizketa eta arazoan analisia
- Eskolandauskagun arazotaz jabetuko gara
- Arazo hauek sortzen duten ondorioez ohartaraziko gara

Aurreko saioa gogoratuko dugu .Autobusa

- Galdera bat eginez motibatuko dugu saioa: Gelan gertatzen diren gauzetatik, zeintzuk dira niri gehien molestatzen didatenak?

- Arbelean jasoko ditugu ikasleek euri jasa batean esandakoak.

- 1.1 Arazoak klasifikatzea: arbelean jasotako arazo guztiak sailkatuko ditugu: materiala, errespetua, gelako giroa....
- 1.2 Arazoen analisia: Guzti horietatik, arazo bat aukeratu eta denon artean arau bat sortuko dugu eredu bezala.
- 1.3 Etxerako lana: Sortu dugun araua kopianatu eta gero etxean horren antzekoak izango diren beste hiru arau egitea proposatzen dizuegu. Horretarako fitxa bat hartu ezazue eta garbi adieraziko diegu gurasoen laguntza eska dezaketela baina beraiek sortutako arauak izan behar direla azpimarratuz. (tutoritza bilera aprobetxatu genuen gurasoei guzti hau azaltzeko)

IZENA

DATA

Zure seme edo alabari laguntza eman diezaiokezu lan honetan zalantzak argituz, galderak erantzunez,... baina utzi bere esku arauak formulatu eta idazteko ardura

Puedes ayudar a tu hija o a tu hijo en esta tarea aclarando sus dudas, respondiendo a sus preguntas,... pero deja que decida como debe formular las normas.



3.  
GELDIUNEA

1. ARAUA

2. ARAUA
3. ARAUA
1.4 SAIOAREN BUKAERA: Zer egin dugu gaur? Autobusaren 2. leihatilan idatziko dugu: -Aurreko saioa gogoratu - Gelan gertatzen diren arazoan hausnarketa - Arbelean arazoak idatzi eta sailkatu - Guztion artean arau bat sortu - Etxerako lana azaldu

### 3.SAIOA

- Arauak proposatzea eta adostea
- Arauak ekartzea
- Arauak adostea

#### 1.1 Sarrera

- Aurreko saioan egindakoa gogoratzea
- Motibazioa pizteko , autobusa agertzea.

#### 1.2.Etxean prestatutako arauen lanketa:

- Lau talde txikitan bildu eta etxean idatzitako arauak taldekoei proposatzea eta taldekideen artean eztabaidatu eta gero,gure gelarako behar beharrezkoak izango diren hiru arau aukeratuko ditugu. Ezinbestekoa izango da guztien akordioa.
- Hurrengo pausoa bi taldetan elkartzea izango da eta talde bakoitzak adostutakoa berrikusi beharko dute berriro beste aukeraketa bat egin ahal izateko: sei arauetatik, hiru besterik ez dute aukeratuko.

- Talde handian bilduta ekarpenak eztabaidatuko ditugu eta arbelean jasoko ditugu gure gelako arauak izango direnak: zenbait kasutan bi arau lotzeko aukera izango dugu bakar bat sortzeko.

1.3. Saioaren bukaera:

Zer egin dugu gaur? Autobusaren 3. leihatilan idatziko dugu:

- Aurrekoa saioa gogoratzea
- Talde txikitan arauak adostea
- talde handian gelako arauak adostea

#### 4.SAIOA

- Adostutako arauak arauen agendan jasotzea

##### 1.1 Sarrera

- aurreko saioan egindakoa gogoratzea
- Autobusaren bidaia, momentuz geldituko dela adierazi adostutako arauak idatziz jaso arte

##### 1.2 .- Arauen agenda aurkeztea

Ikasle bakoitzaren agenda banatu eta arauak idatziz jaso. Ondoren agenda apainduko dugu.

##### 1.3. Saioaren bukaera.-

Agenda etxera eramango dugu etxekoek ere ezagutu dezaten gure gelako arautegia. Etxerako lan bezala, ondorioak pentsatuta ekartzea hurrengo tutoritza saiorako.

#### 5.SAIOA

➤ Ondorioak bilatzea

##### 1.1. Sarrera

Aurreko saioan egindakoa gogoratzea eta arauen hausnarketa egitea.

1.2. Etxetik pentsatuta ekarri dituzten ondorioak txandaka plazaratzea. Arauez arau egingo da elkar jartze hau eta ekarpenak arbelean jasoko ditugu.

1.3. Ateratako proposamenak hausnartuko ditugu eta hiru ondorio bestetik ez ditugu aukeratuko.

1.4.- Saioaren bukaera: arau guztientzako ondorioak ateratzeko denborarik ez dagoenez, hurrengo saiorako etxean berriro beste ondorio batzuk pentsatuko ditugu.

## 6. SAIOA

➤ Ondorioak bilatzen jarraitzea

### 1.1. Sarrera

Aurreko saioan egindakoa gogoratzea eta arauen hausnarketa egiten jarraitzea.

1.1 Etxetik pentsatuta ekarri dituzten ondorioak txandaka plazaratzea. Gelditzen diren arauekin egingo da elkar jartze hau eta ekarpenak arbelean jasoko ditugu.

1.3 Ateratako proposamenak hausnartuko ditugu eta hiru ondorio bestetik ez ditugu aukeratuko. Arauen agendan jasoko ditugu.

1.4.- Saioaren bukaera:

Autobusa primeran iritsi da bere helmugara eta bidai honetan partaide izan garen guztion poza azalduko dugu.

## 7.SAIOA Zikloko Irakasle guztientzako saioa

Zikloko irakasle taldeari talde bakoitzeko arauen berri ematea

Gela bakoitzak adostu dituen arauak agendan jasota geratu dira. Zikloan lan egiten dugun irakasle guztiok ezagutu beharko ditugu arau horiek eta horretarako talde bakoitzeko agenda fotokopiatu eta departamentu guztietan zintzilikatuta izango ditugu, beharrezkoa izan ez gero adostutako ondorioak lehen bai lehen aplikatu ahal izateko.

#### 4.JARDUERA: Irudi hau aztertu eta eztabaidatu zure kideekin gelan

Ondoren azaltzen den irudia ikusi eta aztertu ezazue bosteko taldeetan eta gero gela osoak eztabaidatuko du gaia .



- Ados al zaudete aitarekin jokaerarekin?
- Zer esan nahi du haurrak hori pentsatzen duenean?
- Aitak nola jokatu beharko luke zure ustez?
- Horrelako jarrerak laguntzen al dio bere semeari?
- Zuek nola konpontzen dituzue arazoak?
- Zein aholku emango zenioke aita honi?
- .....

5.JARDUERA : Gatazka txokoa martxan jarri gelan

- Ikasleak inplikaturako ditugu gelan txokoa non jarri erabakitzeko .
- Erabiliko den espazioa antolatu , aulkia belarri txokoa.
- Txokoaren erabilpenerako pautak ikasi

1. Aukeratu gelan non kokatuko den txokoa

- Ikasleak taldeetan antolatu eta erabaki zer behar den txokoaren antolaketan.
- Ahoaren eta belarriaren marrazkiak gero paretan kokatzeko edo eta eskuetan aldatzeko.
- Lurrean kokatzeko alfombra kartulina haundi bat apaindu eta zelokin lurrean erantsi.
- Marrazki batzuk egin txokoren ondoko paretan apaintzeko bertan azaltzen direla irabazi-irabazi
- Besteak...

2. Egindako material guztiak bere tokian kokatu .

3. Gogoratu ikasleekin zein gatazka konpondu daitezkeen txoko honetan , horretarako adibideak jarri

4. Txokoko arawak gogoraarazi ikasleei eta bi bolindres eskatu rollplaying egiteko eta ikusleak gero ikusitakoaren inguruan hausnarketak egin .

5. Taldearekin aztertu egindako antzezpena.

Elkarhizketa txokoaren metodologia azalduko du irakasleak gelan .

1. **Ahoan** nago eta zer gertatu den eta nola sentitzen naizen adieraziko diot **Belarrian** dagoenari.

2.Ondoren lekuz aldatuko gara.

3.Orain **Ahoan** dagoenak gauza bera egingo du.

4.Berriro lekuz aldatzen gara.

5. **Ahoan** nago eta gatazka konpontzeko zer egiteko prest nagoen plazaratuko diot **Belarrian** dagoenari.

6.Lekuz aldatuko gara.

7.Orain **Ahoan** dagoenak zer egiteko prest dagoen adieraziko dit.

8. Gatazka nola konpondu adosten saiatuko gara.

9.Biok elkarrekin irakaslearengana joango gara eta gertatutakoaren berri emango diogu

10. Bukatzeko, irakasleak ea pozik gauden, galdetuko digu.

Ondoren ariketa bat egingo dugu txoko honen erabilera argitzeko eta antzezpenerako bi bolondres behar ditugu .

### ARIKETA

Elkarrizketaren txokoaren funtzionamendua ikasteko egoerak:

#### 1. elkarrizketa

- Gaur autobusean nere lekua kendu didazu era haserretu egin naiz.
- Txantxa bat izan da. Nik ez dut asmo txarrez egin.
- Ez, zeren eta zaintzailea etorri denean neri bronka bota dit beste leku batean eserita nengoelako.
- Arrazoia duzu, baina zuk ere askotan txandapasa egiten didazu.
- Egia da. Arauak errespetatzen saiatu beharko genuke. Ongi?
- Konforme, bihartik aurrera hasiko gara. Ados?
- Ados.

Gelakide batek argazki Kamera digitala hartuta antzezpena egiten diren haurrei argazki bat aterako die , hurrengo eskolako Aldizkarirako , eta inprimatuko du gelako ordenagailuko inpresoran .

Ondoren gelan zintzilikatuko dute.





## 6 Jarduera: Zertan hartzen dut parte nire bizitzan

Ondorengo zerrendan azaltzen diren ekintzetan, zertan hartzen duzu zuk parte erabakiak hartzen.

### NIRE PARTAIDETZA EGUNEROKO BIZITZAN

Hemen azaltzen den zerrenda luze honetan azpimarratu itzazu zuk parte hartzen duzun ekintzak

- Nire arropa erosi
- Bazkaria erosi
- Nire familia edo ezagunen pañalak aldatu
- Nire anai arrebei jana eman
- Iturriak edo entxufeak konpondu
- Bonbilak aldatu
- Etxea txukundu
- Nire gela txukundu
- Ohea egin
- Arropa zintzilikatu
- Arropa lixatu
- Arropa josi
- Zaborra jaitsi
- Ontziak jaso
- Sukaldea garbitu.
- Mahaia jarri
- Hautsak kendu
- Erratza pasa
- Komunak garbitu
- Sukaldata
- Txakurra zaindu edo beste animaliren bat

#### 1.) Bakarkako lana

- a) Ondoren zerrendatu itzazu zuk parte hartzen duzun ekintzak
- b) Parte hartzen ez dituzun ekintzak azpimarratu itzazu beste kolore batez
- c) Adierazi ezazu zein ekintzetan ez duzun parte hartzen eta uste duzu parte hartu beharko zenukela.

#### 2) Taldeko lana

Orain jar zaitezte lau taldeetan eta jar itzazue zuen erantzunak komunean

7.jarduera:Zer ikasi dugu?

## ATOEBALUAZIOA

<b>1</b> Talde lanak ez du ezertarako balio	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>2</b> Gelako arauak ez ditut ezagutzen	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>3</b> Gatazka txokoa zer den ez dakit	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>4</b> Atarietan badago arautegi adostua	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>5</b> Ez nago behartuta adostutako arauak errespetatzen	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>6</b> Garrantzitsua da aktiboki erabakietan parte hartzea	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>7</b> Neri ez zait axola behar zeintzuk diren gelako arauak	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>8</b> Gure arteko liskarrak edozein eratarara konpondu daiteske	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>9</b> Arauak beharrezkoak dira gure eguneroko bizitzan	<b>B</b>	<b>E</b>
<b>10</b> Gizarte asko daude araurik gabe munduan	<b>B</b>	<b>E</b>

**7.jarduera: Zer ikasi dugu?**

Hemen azaltzen diren eskolako irudi hauetan ba al daude arauak?  
Zeintzuk dira zure ustez adostutako arauak 1. argazkian?  
Eta bigarrean argazkian?




1.argazkiko arauak

2. argazkiko arauak

## LAN OSAGARRIAK

### Joku kooperatiboak





### Baratza eta Erroia

2 eta 4 lagunen artean jolasteko jolas kooperatibo bat da hau. 5 urtetik aurrerako umeentzat.

Udak baratza frutak heldu arazten ditu. Erroia gustura egoten da honelakoetan eta tripa-festari ekiteko uneari itxarongo dio pazientzia handiz.

Baina goiz batetan neska-mutilak frutak biltzera joango dira. "Oh!" egingo du karraka erroiak. "Haiek baino azkarragoa izan behar dut".

Umeez euren otarrak beteko al dituzte erroiak gehiegi jan baino lehen?



### Bamboleo

8 urtetik gorako pertsona 2 eta 8 artean egiteko jolasa. Primerakoa familian jolasteko


Egurrezko taula gainean jarri diren piezak kentzea.

Ahalik eta pieza gehien kendu behar dira, jakina. Ez da zeregin erraza. Egurrezko taula batera eta bestera kulunkatzen baita kortxozko bolaren gainean. Eta noski, taula erortzeko arriskuan egongo da beti. Beste modu batera ere jolas daiteke. Taula gainetik piezak kendu beharrean, taula gainean jarri beharko dira.



### Animalia Kontzertua

Behaketa eta kontzentrazio jolas bat da. Azkarra eta bizia, txikientzat eta helduentzat. 3-6 jokalarirentzat, 5 urtetik aurrera  
Ahalik eta animalia famili gehien elkartzeko, familiari dagokion animalien oihua imitatuz.



### Halli Galli

Familia guztiari gustatuko zaion jolas bat  
Jolaseko parte hartzaile bakoitzak txandaka-txandaka kartak banan bana aterako ditu. Mahai gainean denek bistara dauden kartetako 5 berdinak baldin badira kanpaia jotzen duen lehenak agerian dauden kartak irabaziko ditu.  
Parte hartzaile kopurua: 2tik 6ra, 7 urtetik gorakoentzat

Liburua irakurri



**Gaia:** Sentimentuei hitza jartzea.

**Izenburua:** Los sentimientos

**Idazlea:** Nuria Roca

**Editoriala:** Molino

**IRUDI DESKRIBAPENA**



Deskribatu ezazu zure ustez irudi honetan gertatzen dena :

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



ORAIN ROLL PLAYING BAT ANTZEZTU



Orain antzeztu ezazue ondorengo debate hau gelan .

**Mikel:** Nik uste dut kurtso bukaerako bidaia Izotz jauregira beharkolukela izan , ez dago gure ikastetxetik oso urrun eta gainera bertaratzeko modu desberdinak ditugu , autobusa , trena . eta ziur nago soinketako irakasleari gustatuko zaiola azken finean kirolean aritzea da eta osasuntsua da .

**Ane:**Nik berriz uste dut Aquariumera joan beharko genukela , han mota desberdinetako arrainak ikusteko aukera paregabea dugu , gainera azkeneko Naturako glasean hori ikasi genuen eta ez dago eskolatik oso urrun , bokadilo bat eraman eta ondoren edozein parke eukeratu eta han pasatuko genuke eguna.

**Ion:**Eta zergatik ez goaz Zientzi Museora , esan didatenez Planetariuma ireki berria da eta hiru dimentsiotako filma ikusi daiteke , han inguruan parkea dago eta txikigunean esperimendu desberdinak egiteko aukera dugu , bertan orogarriak erosteko aukera ba omen dago ere , eta neri asko gustatzen zait zerbait ekartzea etxekoei .

**Amaia:**Ni berriz gustora joango nintzateke hondartzara , bertan football partidua egin , ondoren bainatu eta bertan aukera asko ditugu olatuekin eta hondarretan jolasteko. Han bertan ba omen dago boleibolleko sarea eta jolas genezake.

Moderatzaile bat aukeratu ezazue.

- Antzeztu ezazue debate hau . Zuek aukeratu zeintzuk izango diren antzezleak .
- Beste gelakideak begiratu ezazue ea sorteen den eztabaida demokratikoa den , errespetatu al dira iritsi desberdinak? Hitz egiteko txandak?.....
- Akordio batetara iristeko gai izan al dira? Nola iritsi dira? Norbaiten laguntza behar izan al dute?

Guzti hau grabatu daiteke eta gero aztertu . Telebistako arduradunei deitu grabketa egiteko .

**Dilema moralak**

Behar zaitut, behar nauzu..."

*DILEMA (ZALANTZA)*

*Gelakide batek jolastoduan irakasleari dirua kendu dio poltsotik, eta nik dena ikusi dut. Irakasleak eta zuzendariak beste bati bota diote errua oso bihurria delako. Lapurtu duenarekin hitz egin dut eta esan diot egia esan behar duela bestela besteak ordainduko duela. Baina berak ezetz esaten du eta mehatxatu nau ezer ez esateko.*

**SALATUKO DUT ALA EZ?**

*METODOLOGIA*

*A) Dilema irakurri ondoren BAI edo EZ idatziko dute papertxo batean. Baita eritzia defendatzeko argudio bat ere.*

*B) Talde bi eratu: baietzaren eta ezetzaren aldekoak.*

*C) 10 minututan baietz eta ezetzaren hainbat argudio aterako dituzte.*

*D) Debatea zabalduko da. Eritziz eta taldez aldatzeko aukera eskeiniko diegu.*



**Hemen ikusten duzun irudi hau aztertu ezazue taldeka .**

Zertan ari dira?

Nola daude kokatuta?

Zein izan daiteke eztabaidatzen ari diren gaia?

Non ari dira ospatzen asanblada?

Elkarren arteko errespetoa nabari al da?

Zer gehiago bururatzen zaizue?